

In memoriam: Basilio Sarobe Aldabe

EUSTASIO ETXEZARRETA

Liturgiako itzulpen-lanen koordinatzailea¹

Joan den abenduaren 1ean hil zen Basilio Sarobe Aldabe Sunbillako erretore ohia, 90 urterekin. Lesakan 1929. urtean jaioa, hamalau senideren artean gazteena zen. Haietatik bederatziti senide bizi izan ziren, eta horietatik bat, Pakito, jesuita izan zen, gazterik hila; arreba bat, Maria, Karitateko Alaben elkartekoa, Oviedon; beste anaia bat, Don Jose, Berako parrokiako erretore izan zen; eta, azkenik, Juanita, Ahizpa Karmeldarren Ordenakoa, bizi da oraindik, Getxon (Bizkaia), eta 97 urte ditu. Beraz, familia kristau peto-peto batean jaio zen Basilio. Iruñeko Seminarioan egin zituen ikasketak, eta 23 urterekin hartu zuen apaiz-ordenazioa, 1952an, Bartzelonan, Nazioarteko Eukaristia Kongresuan. Gaetano Cicognani kardinalak eman zion apaiz-ordenazioa.

Don Basilio, Sunbillako parrokiako erretore

Bere apaiz-ibilbidean ez zuen parrokiak aldaketa askorik izan. 1952an, Sunbillako apaiz laguntzaile izendatu zuten; Don Sergio Garaikoetxea zen sasoi hartan erretore. Baina, 1964an, gaixoturik, parrokia utzi behar izan zuen, eta Erratzura joan zen bizitzera. Ondoren, Don Basilio izendatu zuten

parrokia hartako arduradun edo erretore. Ordurako boteak zituen zainak indartsuago sustraitu zituen, 47 urtez izan baitzen hango parroko.

2010. urtean, parroko gazte berria izendatu zuten Sunbillarako, eta Basilio erretore-arduretatik aske gelditu zen, nahiz eta oraindik ere hainbat laguntza eskaini parrokiari. Baina, 83 urte zituela, zoritxarreko auto-istripu bat izan zuen, eta, haren ondo-

1. Nire esker ona adierazi nahi diet Basilio Sarobe Aldaberen oroitidazki hau egiteko beren laguntza estimagarria eman didatenei: Eduardo Sarobe Mitxelena, Basilio Saroberen iloba; Agustín Elizalde Apeztegia, Iruñeko Artzain Ona egoitzako zuzendaria; eta Amets Inda Gorriaran, Sunbillako alkatea.

rioz jasandako zauri larriak gainditzea lortu bazuen ere, aski mugatua gelditu zen. Hala, 2013an, erretiro osoa hartu, eta adineko apaizen egoitzara joan zen, Iruñeko Artzain Ona egoitzara. Han egin zituen bere bizitzako azken sei urteak, buruz argi, nahiz eta oinetatik motel egon eta gurpil-aulkia behar izan. Esan bezala, 2019ko abenduaren 1ean hil zen, Iruñean; hileta-elizkizunak Sunbillako parrokiaren egin ziren, eta haren gorpuhilotzak hango hilerrian utziak daude, berak nahi izan zuena betez. Sunbillako herriak eta, batez ere, kristau-elkartek maite izan du 61 urtez segidan beren apaiz arduradun izan dena. Horren lekuko da 2002. urtean, beraren apaizgintzako 50. urteurrenean, fededunek egin zioten aitortza edo omenaldia. Baita 2013ko abuztuaren 11n Udalaren ekimenez egin zioten agur-omenaldia ere Sunbillako zaindaria San Tiburtzioren festekin loturik.

Bere bizitzako jardueran era askotako lanetan sartua ikusi izan dugu Basilio Sarobe. Parrokiako apaiz-eginkizunak izaten zituen lehenengo ardura: igandeko ospakizuna dela, katekesia, Donamariako Karmeldarren kapilautza, liturgia aldietako une nagusiak zaintzea... Baina ez zen eliz barruko gauzetara mugatzen zen gizona. Frantzisko aita santuak dioen hori, «elizatik kanpora ateratzen ikasi behar dutela apaizek eta eliz erakundeek», Basiliok berezkoa zuela esan genezake. Ahots ederra eta bizia zuen, eta Elizondoko Abesbatzan abestu zuen urteetan, Juanito Eraso kantu-alorreko jakintsuaren zuzendaritzapean; bere parrokiaren ere abestalde bat sortu zuen eta zaindu, eta gaur oraindik ere bizirik jarraitzen du abesbatzak. Haurren pilota-txapelketak eratzen

zituen Sunbillako frontoian. Neska-mutiko txistularien eskola moduko antolakuntza bat sortu zuen, oso multzo zabala egiteraino herriko gaztetxoekin, eta egunero ordu desberdinetan taldeka biltzen zituela irakasten zien.

Basilio ez zen geldi egotekoa; ez zen inondik ere gizon nagia; lanaren handiak ez zion atzera eragiten, eta eskuetan hartzen zuen eginkizuna azkeneraino eraman arte ez zuen etsitzen. Horren adibide dira, lehen esandakoez gainera, esate baterako, parrokiaren eraikina saneatu beharra gertatu zitzaioneko. 1971. urtean, elizako dorrean itaxur edo itogin handiak agertu ziren, eta, eliza itxi, eta obra gogorra egitea egokitu zitzaion. 23 hilabete luzatu zen eraikinaren konponketa. Elizaren hormak altuak izaki sabaiaren kargarekin lehertzeko arriskuan zeuden. Eraberritze-lan gogorrei aurre egin behar izan zien: hormak metro eta erdi jaitsi eta sendotu, sabai berria egin, eliza margoitu... eta faturei erantzun.

Basilioren beste zaletasun edo afizio bat Ameriketako artzainekiko harremana izan zen. Baziren Sunbillatik Ameriketara artzain-lanetara joandako garai bateko gazteak, oporrak egitera etorriak edota adinagatik hemen gelditzeko erabakia hartu zutenak. Haien jatorriko eta bizitzako ibilbideetako datuak biltzeari ekin zion; bakoitzaren zuhaitz genealogikoa osatu nahian, herriko eta kanpoko artxiboak arakatu zituen, datuak eskuratzeko, ahal zuen heinean mendeetan atzera eginez. Lan horrek izan zuen bere fruitua, Jesus Goldaraz Doneztebeko erretorearen zuzendaritzapean elkarlanean argitaratutako *Sunbildarrak Amerikan (1898-1993)* liburuan sartu baitzituzten

Basiliok bildutako hainbat datu eta informazio. Hori dela eta, esker ona adierazten diote egileek liburuan, eta «artzainen artzain» titulua ematen. Baina Basiliok egindako datu-bilduma liburuan agertzen dena baino askoz zabalagoa eta urteetan luzeagoa zen; lan horren emaitza Udalari eskaini zion, eta Udaletxean dago jaso.

Basilio Saroberen euskararekiko zaletasuna

Basilioren askotariko jardueran, kapitulu berezia merezi du haren euskararekiko zaletasunak. Elizaren liturgiako liburuekin lotua dago bereziki zaletasun hori, eta, hitz gutxitan esateko, Vatikanoko II. Kontzilioak elizkizunetan herri-hizkuntza erabiltzeko hartu zuen erabakiarekin lotua. 1962ko urrian hasi zen Kontzilioa, eta 1965eko abenduan bukatu; beraz, sasoi betean harrrapatu zuen Basilio. Zehazki, eliz batzar haren ondorioz egin behar izan ziren euskal itzulpenetan parte hartzea egokitu zitzaion. Eliz liturgiari buruzko konstituzioa izan zen eliz batzarrak landu eta 1963an sinatu zuen lehenengo dokumentua. Konstituzio horretako 36. zenbakiak zera dio: «Bai mezatan bai sakramentuak ematekoan, toki handiago eman dakioke ama-hizkuntzari». Gure kasuan, euskarari.

Hortik hasi ziren ordu arte latinez zeuden testu liturgikoak euskarara itzultzeko

lanak. Aipatu dokumentua egin eta handik hilabete gutxira hasi ziren itzulpen-lanak, 1964ko udaberrian; hain zuzen ere, 1965eko martxoaren 7an hasi behar zuten parrokiatan mezako zati batzuk herri-hizkuntzan ematen, garizumako lehen igandean, eta horretarako prestatu beharrak zeuden testu berriak.

Elizbarrutietako jardueran ez zegoen artean horrelako lanen esperientziarik. Bestalde, elizbarruti bakoitza guttiz autonomoa zen bere eliz jarduera antolatzeko. Oso denbora gutxi gelditzen zen, gainera, esandako eperako testuak prest edukitzeko. Horrela, Baionako elizbarrutia izan zen itzulpen-taldea eratu zuen lehenengoa; Belokeko beneditarren monasterioan bildu ohi ziren lanerako. Urte berean, hilabete batzuk geroxeago eratu zen beste talde bat, Gipuzkoan; Donostiako Seminarioan egiten zituzten laneko bilerak. Bi talde horiek izan ziren, hasiera hartan, itzulpen-lanen ardura hartu zutenak, eta bakoitzak bere aldetik lan egin zuen.²

Liturgiako testuen itzulpen-lan haietan, hiru etapa bereizi behar dira: lehenengo etapian, Kontzilio aurretik Elizak esku artean zerabilen Trentoko *Meza Liburuaren* itzulpena egin zen, hau da, *Meza Liburu* zaharren itzulpena; bigarrenean, Vatikanoko II. Kontzilioaren ondorioz 1969an argitaratu eman zituzten *Meza Liburu*a eta *Irakurgaiak* itzuli ziren, eta, haiekin batera, baita banan-

2. Garai hartan bazen euskaraz Orixeren *Urte guziko Meza-Bezperak* eskuliburua, baina Orixek zerabilen euskara une hartan goi-mailakotzat jotzen zen alfabetatu gabeta zen herri xehearentzat; horregatik, herri-mailako itzulpen berria egiteko erabakia hartu zuen Lorentzo Bereziartua Donostiako gotzainak. Bizkaian ere bazuten *Eguneroko Meza*, Jaime Kerexeta abadeak eta A. Santi Onaindia karmeldarrak 1960an bizkaieraz argitaratua, eta hura baliatuko zutela erabaki zuen Pablo Gurrupide Bilboko gotzainak; Araban eta Nafarroan, berriz, Gipuzkoako taldeak prestatutako testuak erabili zituzten, kasu batzuetan aldaketa batzuk eginda.

banan berritu ziren gainerako liturgia-liburuak ere, hau da, Elizaren Otoitzerako eta sakramentuak ospatzeko erabili ohi direnak; eta, hirugarrenean, 2002an, zenbait zuzenketa eta eranskin gehituta argitaratu eman ziren *Meza Liburua* eta *Irakurgaiak* liburu eraberrituak itzuli ziren.

Lehenengo etapari dagozkion hasierako talde-lan haiek aski nahasiak eta zalapartatsuak izan ziren. Lan handia eta denbora gutxi zegoenez, testu-sortatxo bat itzuli ahala liburuxka bat argitaratzen zuten, eta berehala ekiten zioten hurrengo testu-sorta itzultzeari eta argitaratzeari. Hori guztia elkarrekin erabateko harremanik izan gabe egin zuten lehenago aipatu diren bi itzulpen-taldeek. Ondorioz, mezaren betiko zati batzuk hiru eta lau erataria argitaratuak azaldu ziren. Eztabaidak sortu ziren, eta itzulpen bateratua egiteko saiakera bat edo beste ere egin zen.

Itzulpengintzaren une hartako desegokitasunari irtenbidea eman nahirik, 1968ko Eguberrietan, Arturo Tabera Iruñeko artzapezpiku berriak batzarrerako deia egin zien beste euskal elizbarrutietako gotzainei, eta erabaki zuten itzulpen-talde bakarra izan zedila liturgia, katekesia eta eliz idazki ofizialak itzuliko zituena. 1969ko urtarrilaren azken aldera hasi zen lanean talde bateratu eta eraberritu hura, Bizkaiko eta Nafarroako ordezkariak barne zirela. Donostiako Seminarioan egiten zituzten beren laneko bilerak. Vatikanoren *Meza Liburua* eta *Irakurgaiak* liburuak zatiak itzultzea izan zen orduan hiruzpalau urtez egindako lana. Don Basiliok euskararen inguruko liburuetan izandako esku-hartzea bigarren etapa horri dagokio.

Aitortu behar da itzulpen-lan haietan Basilio ez zela, nolabait esateko, protagonista; ez zuen horretarako prestakizun apartekorik. Baziren taldean horretarako pertsona ospetsu eta jakintsuak; beste askoren artean, hauek aipa ditzakegu: Manuel Lekuona eta haren iloba Joan Mari Lekuona, Martzelo Gaztañaga, Jose Luis Ansorena, Joxe Mari Aranalde, Jexux Gaztañaga eta Agustin Apaolaza, Gipuzkoakoak; Pierre Lafitte, Pierre Narbaitz, Emile Larre, Xabier Iratzeder, Pierre Andiazabal eta Pierre Xarriton, Baionako elizbarrutikoak; Joxe Mari Azpiz, Juan Goikoetxea, Migel Plaza, Tomas Otxandorena eta Basilio Sarobe bera, Iruñeko elizbarrutikoak; Lino Akesolo, Karmelo Etxenagusia (zeina gotzain sagaratu izan baitzen gero), Jaime Kerexeta, Mikel Zarate eta Bittoriano Gandiaga, Bilboko elizbarrutikoak.

Euskarari dagozkionetan eta hizkuntzalaritzan bereziki jakintsua ez bazen ere, jaun ospetsu horien artean aritu zen Basilio ere. Bazituen, ordea, bestelako dohain batzuk, itzulpen-lanak bukatu ondoren beharrezko eta garrantzizko gertatu zirenak. Argitaratu egin behar baitziren testu horiek liburuetan, eta hor erakutsi zuen bere gaitasuna. Bizitzako beste arloetan ez dakit, eta ez nuke esango, baina paperak txukun eta ordenan jarri eta erabiltzeari dagokionez oso ordena garbikoa zen Basilio. Liturgia-liburuetakoa testuak garbian idatzi, ordenatu, behar den hurrenkeran bildu, xehetasunak ondo zaindu, liburu osatu, argitaratu, azalez tatu eta zabalkundea egin; horra Basilioaren emaitza guztiz berezia, betiere talde-lanean eginga. Gogoan dut Sunbillako herri-sarreraren Bidasoaren ibaiertzean dagoen apaiztxean

zenbat ordu eta zenbat egun eman genuen elkarrekin lan horietan.

Bada Basiliori dagokion pasadizo bitxi bat aipatu nahi dudana. Esaten ari garen lan hori egiteak arreta edo kontzentrazio handia eta lan jarraitua eskatzen zuenez, parrokiako beste ardurek ez zioten uzten buru-belarri horretan aritzen. Orduan, eskaria egin zitzaion Iruñeko Gotzainari, aske utz zezatela Don Basilio Sunbillako parrokiako arduratatik, erabat euskarazko liturgia-liburuak argitaratzeko prestatze-eginkizunetara emana egon zedin. Aintzakotzat hartu zuen gotzainak eskaria, eta, 1972an, Sotxantre deritzon kantuaren arduradun-kargua eman zioten Iruñeko katedraleko benefiziaduen sailean. Hori lorturik, bigarren pausoa zegoen eman beharra: Sunbillako parrokiarako apaiz erretores berria izendatu behar zen, baina hor sortu zen arazoa; ezin aurkitu izan zuten Nafarroan apaiz euskaldunik Sunbillarako. Urte batzuek bi karguak bere gain hartu behar izan zituen: Sunbillako parrokia zaintzea eta, aldi berean, Iruñeko katedraleko Sotxantre izatea. Ikusirik erremedioa jarri ordezkia berriak hartzen ari zela bere gain, utzi egin behar izan zuen katedraleko zeregina.

Itzultzaile-talde hark jaso izan ditu Euskal Herriko erakunde ofizial batzuek egindako aitortzak. 2002ko urrian, EIZIEk omenaldi xume bat eskaini zien, Donostian, itzulpengintzan lan egin zuten talde eta pertsona jakin batzuei, Itzulpengintzari buruzko Europako Jardunaldien barruan. Bestek beste, Biblia, liturgia eta katekesiko testuak, eta orokorrean testu sakratuak euskaratzen aritu izandako taldekideak izan ziren omenak eta ohorezko bazkide izendatuak;



Erdiko lerroan, behetik gora: Jose M. Setien, Donostiako gotzaina; haren atzean, Basilio Sarobe, Sunbillako erretores; haren atzean, Bixente Sanzberro, Oronozko erretores; beraren ondoan, eskuinaldera, Karmelo Etxenagusia, gerora Bilboko gotzain-laguntzaile izan zena.

Ezkerreko lerroan: Jose Luis Ansorena, Donostiako apaiza; Manuel Lekuona, euskaltzainburu ohia; Eustasio Etxezarreta, liturgiako lanen koordinatzailea; Migel Iruñeko gotzaindegiko apaiza; Jose M. Rementeria, Ondarroako parrokoa; A. Lino Akesolo, karmeldarra.

Eskuinaldeko lerroan: Pierre Andiazabal, Baionako katedraleko kalonea; Joan M. Lekuona, poeta, irakaslea, euskaltzainburuorde ohia; Jose M. Azpiroz, Luzaideko erretores ohia, gero Iruñeko gotzaindegian egona; Migel Plaza, Arraiozko erretores.

Basilio bera ere bai, haien artean. Halaber, 2019ko martxoan —joan den urtean, hain zuzen—, Euskaltzaindiak, beraren sorrerako mendeurreneko ospakizunen artean, omenaldia eskaini zien Bilboko Egoitzan aipatu

itzultzaile-taldekideei, eta eguzki-lore bana eman zieten oroigarri gisa. Bi jardunaldi haietan izan zen Basilio ere; Euskaltzaindiaren, gurpil-aulkian eseria eramán zuten, baina buruz argi zegoen. 2012an, liburu-

dohaintza bat egina zuen berak Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekarako.

Agur, Basilio apaizkide, lankide eta lagun on. Egun handira arte! *Requiescat in pace!*

Resumen

Basilio Sarobe Aldabe, nacido en Lesaka (Navarra) en 1929, fue ordenado sacerdote a los 23 años en el Congreso Eucarístico Internacional de Barcelona; ejerció su labor pastoral durante 61 años en la parroquia de Sunbilla (Navarra). Se jubiló a los 83 años, retirándose a la residencia del Buen Pastor de sacerdotes mayores en Pamplona, donde vivió sus últimos seis años. Murió el 1 de diciembre de 2019. Hay dos facetas a destacar en la actividad de Basilio Sarobe: su entrega a la parroquia en tanto que sacerdote y el ingente trabajo que realizó para fomentar la liturgia en lengua vasca. Su tarea en este ámbito merece una especial consideración y cabe resaltar su aportación para la publicación de *Irakurgaiak*, versión en lengua vasca del Leccionario bíblico del Concilio Vaticano II.

Résumé

Basilio Sarobe Aldabe né à Lesaka (Navarre) en 1929, fut ordonné prêtre à l'âge de 23 ans lors du Congrès eucharistique de Barcelone, et exerça ses fonctions sacerdotales pendant 61 ans à la paroisse de Sunbilla (Navarre). Il prit sa retraite à 83 ans, et se retira à la résidence du Bon Pasteur de Pampelune, maison de retraite pour prêtres, où il vécut ses six dernières années. Il est décédé le 1^{er} décembre 2019. Deux aspects se distinguent dans son activité : avoir donné sa vie de prêtre à la paroisse, et son grand dévouement à la liturgie en langue basque. Mais entre toutes les fonctions qu'il exerçait, Basilio Sarobe Aldabe mérite une considération particulière pour sa dévotion à la liturgie en basque, et sa contribution à la publication par le Concile Vatican II de *Irakurgaiak*, lectionnaire biblique qu'il avait traduite.

Abstract

Basilio Sarobe Aldabe was born in Lesaka (Navarre) in 1929, and was ordained as a priest at age 23 at the International Eucharistic Congress of Barcelona. He carried out his pastoral work for 61 years in the parish of Sunbilla (Navarre). He retired at 83, moving into the Good Shepherd retirement home for priests in Pamplona, where he spent the last six years of his life. He died on December 1, 2019. There are two features of Basilio's life that are particularly noteworthy: his lifelong devotion as the priest of his parish, and his strong dedication to the liturgy in Basque. Among the many aspects of Basilio's multifaceted history, his dedication to the liturgy in the Basque language deserves special consideration, especially for his contributions to the publication of *Irakurgaiak*, the Biblical Lectionary of the Second Vatican Council.